



**Arartekoaren 2017R-1850-16 Ebazpena, 2017ko maiatzaren 17koa. Horren bidez, Donostiako Udalari honako hau gomendatzen zaio: Atotxa-Erreka proiektuko urbanizazio obretatik sortutako lurrak biltegitratzearen gaineko udal-informazioa eskuratzeko eskaerari berariazko erantzuna eman diezaiola.**

### Aurrekariak

Pertsona batek Arartekoari jakinarazi dio Donostiako Udalak ez diola erantzun udal-informazio zehatz bat eskuratzeko eskaerari.

Idazkian 2016ko ekainaren 14ko eskaerari egin dio erreferentzia; bertan, bi gairi buruz dagoen informazioa eskuratu ahal izatea eskatzen zuen:

- Atotxa-Erreka proiektuko hirigintza-obretatik sortutako lurrak biltegitratzea.
- 2009 eta 2011 urteen artean Atotxa-Errekako 91. zenbakian kokatutako lursailean lur horiek biltegitratzeko udal-lizentzien gainean dagoen informazioa, eta lursail horretan 50 zuhaitz mozteko baimenaren gainekoa.

Erreklamazioan adierazitakoaren arabera, gaur egun arte ez du erantzunik jaso eta horregatik erakunde honetara jo du.

Erreklamazio hori izapidetzeko onartuta, 2016ko urriaren 19an, Arartekoak Donostiako Udalari informazioa eskatu zion informazioa eskuratzeko eskaerari erantzuna emateko bideratu ziren jardueren inguruan eta, bereziki, interesdunari horren inguruan bidalitako jakinarazpenen inguruan.

Horri erantzunez, Donostiako Udalak eskaera horri lotuta proiektu eta obren zuzendaritzak igorritako txosten bat helarazi dio Arartekoari. Honako hau dio txostenak:

*"2016ko ekainaren 14an Atotxa Errekako urbanizazio proiektuko obren gainean galdetu zituen gauza batzuen erantzuna emateko eskatu zuen XXX-k.*

*Hark galdetutako gauzei erantzun ahal izateko, bilera batzuk itzan zituzten Obra eta Proiektuetako teknikariek harekin, eta espedientea bulegoetan ikusten ere utzi zioten.*

*Hala, harekin izandako bileretan, Obra eta Proiektuen alorrari dagozkion gaien inguruko azalpenak eman zitzaizkion.*

*Bera, guk uste dugu izan duela espedientean den dokumentazio publikora jotzeko bidea interesatuak."*





Informazio hau kexagileari helarazita, azken horrek azpimarratu du udalak ez diola erantzun dokumentazioa eskuratzeko eskaera bati.

Informazio horri erreparatuta, eta horren edukiak aztertu ondoren, ondoko hauek jakinarazi nahi dizkizut:

### Gogoetak

1. Oro har, Herri-administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 13. artikuluan ezarritakoaren arabera arautzen dira espedienteetako eta erregistro publikoetako dokumentazioa eskuratzeko eskariak.

Zehazki, artikulua horrek honako eskubide hau aitortzen die herritarrei: *“Informazio publikora, artxiboetara eta erregistroetara irispidea izatea, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean eta gainerako ordenamendu juridikoan aurreikusitakoaren arabera.”*

2. 19/2013 Legeak informazio publikoa eskuratzeko prozedura arautzen du. Arau honek administrazioaren esku dauden eduki edo agiriak eta beren funtzioen jardunean egin edo eskuratu direnak jotzen ditu informazio publikotzat.

Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea erabiltzea errazteko xedez, legeak prozedura azkarra ezartzen du, erantzuteko epe laburra duena.

Adierazi beharra dago egindako eskaera berariazkoa izan behar duela. Hala, sarrera onartu edo ukatzen duen ebazpena, gehienez ere, hilabete bateko epean jakinarazi beharko zaio eskatzaileari, ebazteko eskuduna den organoak eskaera jasotzen duenetik zenbatzen hasita.

Gainera, aipatu behar da, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 24. artikulua autonomia erkidego bakoitzean eskuduna den Gardentasun eta Gobernu Onerako Batzordearen aurrean erreklamazio bat jartzeko aukera ezarri duela. Erreklamazio hori informazioa eskuratzearen arloko berariazko edo ustezko ebazpen ororen aurka jarriko da, administrazio-auzien bidetik aurkatu aurretik.

Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, informazio publikoa eskuratzeko Euskal Batzordearen 128/2016 Dekretuak ezartzen duenaren arabera, batzorde horri dagokio aurkezten diren erreklamazioak ebaztea, herri-administrazioen edo euskal sektore publikoko gainerako erakundeen berariazko edo ustezko ukapenei dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komunak eta toki erakundeak barnean daudenak.





3. Hirigintzari buruzko informazioari dagokionez, zehaztu beharra dago eskubide hori Lurzoruari eta Hiri Birgaitzeari buruzko Legearen Testu Bategina onartu duen urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 5. artikuluan eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 9. artikuluan jasota dagoela.

4. Eskubidea betearazteari dagokionez, dokumentuak jasotzeko aukera osagarriak diren bi mekanismoren bidez gauza daiteke: udal plangintza edo beste administrazio-egintza batzuk materialki eta zuzenean aztertuz, edo bestela, hautatutako komunikabidearen bidez informazioa bidaliz. Era berean, informazioa eskuratzeko eskubideak berekin dakar plan horiek osatzen dituzten dokumentuen kopia eskuratzeko eskubidea, baita izapidetzen ari diren hirigintza arloko espedienteekin loturiko dokumentazioa jasotzeko aukera ere.

5. Edonola ere, udaleko bulegoetan dagoen dokumentazioa eskuratzeari gorabehera, gogoan izan behar da herri-administrazioek arin, biziki eta eraginkortasunez berriazko erantzuna eman behar dietela interesdunek egiten dizkieten eskaera guztiei, behin betiko ebazpena eman arte edo espedientea itxi arte.

Aztertzen ari garen kasuan, herritarrek administrazio onerako duten eskubidetik ondorioztatzen diren betebeharrak honela zehaztuko lirateke: eskaeraren hartu-agiria aurkeztea; eskaera gai horretan eskuduna den arlora bidaltzea eta, azkenik, egindako eskaerari epe zentzudun batean erantzuteko betebeharra.

Horregatik guztiagatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera, gomendio hau egin dugu:

## GOMENDIOA

Arartekoak Donostiako Udalari gomendatzen dio berriazko erantzun bat emateko kexagileak egindako eskaerari; hala, kexagileak eskaera hori egin du udal espedienteetan dagoen dokumentazioa eskuratzeko aldera, Atotxa Errekako lurak mugitzeko eta urbanizazioko proiektuaren adjudikazioari eta Eusko Jaurlaritzaren ingurumen-baimenari dagokienez. Ebazpen horretan, bere eskumeneko arlo guztietan izapidetutako udal-espediente guztiak hartu behar dira kontuan (hirigintza, ingurumena, proiektuak eta obrak...).

Gogorarazi behar da hirigintzari buruzko informazio eskariak azkar, lehenetsunez eta 19/2013 Legean aurreikusitako epeetan izapidetu eta ebazteko betebeharra. Era berean, udalak dokumentazio publikoa eskuratzeko berriazko edo ustezko ebazpenaren aurrean erabil daitezkeen errekurtsio-bideen inguruko informazioa emateko betebeharra du.

